


## DIRU SARRERAK

Gure diru iturri nagusia pertsona fisikoak dira, gure bezeroak. Hilabetean irabaziko dugun diru kopurua 4950€-koa izango da, ile lehorgailu bakoitzak 150€ balioko du eta gutxi gora behera hilabete batean 33 pertsonak erosiko dute. Hilabetearen arabera gehiago edo gutxiago saldu daiteke, hala ere batz bestekoa 33 pertsonekoa izango da, eta gehiago irabaziz gero diru hori gordeko da gutxiago salduko den hilabeteetarako.

Diru sarrera mota ordainketa bakarreko diru-sarrera izango da, hau da, ile lehorgailua erosterakoan guztiz ordaindu beharko da momentu horretan, 150€-ko prezioa duelako. Ezingo da gutxinaka ordaindu, hau da, ezinezkoa izango da ordainketa errepikakorra.

Gainera, diru sarrerak sortzeko ezinbesteko izango da publizitatea. Horretarako, alde batetik influentzer batzuei doako lehorgailuak eskeiniko dizkiegu, hauek beraien sare sozialetan argitaratu dezaten, beraien jarraitzaileek ikusteko. Beste aldetik, argazki eta bideoei esker iragarkiak egingo ditugu, sare sozial bat erabiltzen hari zaren bitartean iragarki hauek azaltzeko. Azkenik, instagram eta Tik Tokeko kontuak egingo ditugu, gure produktua sustatzeko. Modu hauen bitartez, pertsonen atentzioa piztea espero dugu, horrela beraiengan eragina izan eta ondorioz gehiago saldu.



Gure produktuak urte guztian zehar prezio finkoa izango du, 150€-koa. Hala ere, urtean zehar hainbat deskontu izan ditzakete gure bezeroek; zozketak, erositako kantitatearengatik...